

Xipri Anbelsaide

APAIZA ETA KAZETARIA

Barbaroen inbasioa

N

eure begiz nahi nuen ikusi mendeko eskandalurik handiena. Joan naiz Tenerifera. Ikusi dut. Lehen egunean berean heldu da 66 beltzez muku betea zen patera bat. Nehor ez zitekeen hurbil: poliziek zaintzen zituzten. Kutsagarri ote ziren? Maskak eta eskularruak zeuzkaten Cruz Rojakoek. Jantzi berriak eman dizkiete, tea edatera eta polizialdegira eraman, auzitegira, nehor sar ez daitekeen zentro batetara, eta azkenik hegazkinez beren herrira. Zenbait beren laugarren entseguan dira.

Karrikan ikusi ditugu zenbait, kanporatuak ez izanak. Faye hanka motza. Casamantzik -1.700 km, Bilbotik Anwersera patera txar batetan!— abiatu da eguzkiarekin joan den abenduan. Bidean haizea itzuli, airea hoztu, euria hasi, aterberik gabe trenpatu dira, hoztu, gaixotu. Bederatzi bota dituzte itsasora, hilak, Faye eta beste hiru ospitalean sartu dira lehorreratu eta. Hiru hil dira. Faye-ri zangoa moztu diote. “Xantza izan dut” erran digu irriz bere hortz zuriak erakutsiz.

Ndiaye-ri besoa diote moztu. Karriamaxka bat izan du bidean. Bidaiaiko hamar egunetan, gaizkondu zaio eta gangrena sartu.

M'boro arrantzaleak badaki itsasoko berri. Azken bi egunetan urik ez zen gelditzen. Egarrria zipuldua, ur gazia edan du. Zauriaren gaineko pikoak!



GAIZKA IROZ

Tenerifeko hilerrietan 300 bat hobi izenik gabe: itsasoak botaiak. Beste zenbat itsaso zolan edo tiburoiek janak! Ez badituzte alizeoek Ameriketara eraman: Bahamak irletan aurkitu dute patera bat sei gorputz barnean, momifikatuak. Batzuk Sahara iragatera saiatzzen dira. Lortzen dutenatarik zenbait Ceutako tiroen artetik pasatzen dira. Horiek ere xantza alde dute.

Ez ditugu munduko miseria guziak aterbetzen ahal! Zinezko inbasioa da, lehenagoko bisigodoena iduria. Zer dute barbaro moderno horiek, gu bezain ongi bizitzeko errabia hori? Mesedez, utz gaitzatela bakean!

Iduriz burumuinik aski ez baitute horren ulertzeko, Europak sortu du FRONTEx: 116 itsas ontzi, 27 helikoptero, 12 hegazkin eta 492 “teknikari” talde gure ongizatea zaintzeko. Israelgo hormarik ez badugu, beste biderik hartzeko eskubidea badugu ez? “Diru hori xahu balezate lantegiak sortzen gure herrian, han geldi gintezke” erran digu Izakak. Deslokalizazioak nahi gainera! Larrutuko gaituzte! Zer kopeta!

Eta bere garapena segurtatzeko, urte oroz, beltz eta indioak behar Euskadik milaka!

Presio-eltzea txistuz ari da. Bi aterabide dauzkagu. Sua hil edo tapoia zapa. Iduriz bigarren bidea dugu hautatu.

Ezagutzen duzue ondorioa. Presio-eltzea zapartatuko da. Gu bizi gareno irauten duen ber... ■

Presio-eltzea txistuz ari da.

Bi aterabide dauzkagu. Sua

hil edo tapoia zapa. Iduriz

bigarren bidea dugu

hautatu. Ezagutzen

duzue ondorioa

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Sindromea. Doaneko maileguaren ajea. Urririk emandakoa irabazitzat hartzea.

Eskainitakoa, berez, merezitakoa balitz legez barneratzea. Oparia eskubide bilakatzea. Ez dira gutxi adibideak. Amnistia aldarriak Urkori nola, Alderdien Legeak ANV-EAERI hola. Donibane Lohizunen ezagutu nuen Gonzalo Nardiz. Etxean nuen ANV izena entzuna. Ez nuen militanterik ezagutu Iparraldera egin bitartean. Geroztikakoak izan ziren Valentin Solagaituaren joan etorriak eta ANVren barne arazoak. HB izan zuten politikan jarduteko eremua. Hondar garaiotan hartu dute Batasunari zegokion lekua. Ongi. Beharrezkoak bila-

Telonero

katu zaizkigu eta jakin dute zerbitzua betetzen. Baina sobra ere sinetsi dute eurak direla izarrak, aro ilun honetan

gai argigarriak. Beren azken batzarrean argira eman agiri estrategikoak hala adierazten du. Irudi luke eskainitako arrakastaz mozkortu egin zaizkigula eta bide estrategikotzat, borobila aukeratu dutela beren baitan itzulika ibiltzeko tiobibo-manexen antzera. Ari eta ari, kilometroak egin eta leku berean kieto. Erregaiak xahutuz inguruari agurka. Pozik. Eta erabaki dute bakarrik jarraitzea zorabiatu arte. Ez dute ezker abertzalearen beharrik, aski dute urririk hartu dutenaz. Bejondeiela berean. Ezker abertzalearen biltzeak beste nonbaitetik etorri beharko du. ■